

EMAKUMEZKO ETA GIZONEZKO HEROIAK ETA EUREN EKINTZA HEROIKOAK ZENBAIT ARTE IRUDIKAPEN GARAIKIDETAN: MOTA ETA EGOEREN EZAUGARRIAK

Tesiaren egilea: Izibene Oñederra Aramendi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Pintura Saila

Tesi-zuzendaria: Fito Ramírez Escudero eta Txus Meléndez

Tesiaren laburpena:

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaskuntza- eta ikerkuntza-eskaintzaren ildoan kokatzen da ikerketa-lana, eta arte garaikidearen izaera narratiboaren baliozkotasuna azpimarratzen du, ingurune kultural hurbilenari eragiten dioten arazoan irudikapen original, aurreiritzi gabe eta eguneratua eskainiaz; irudikapen tradizionalaren aurrean, ikuspegi kritikoa mantendu arren, hura alboratu gabe. Gaur egun estereotipatuak kontsideratzen diren arketipo jakinetatik aldendu eta heroia-aren inguruko beste modu batzuetako irudikapenak ekartzen ahalegindu gara, bere aldakortasun formal eta semantikoa nabarmen utziaz. Kontzeptuaren objektibazio- eta arrazionalizazio-ahaleginean, balorazio topiko eta erabiliegiak ezabatu nahi izan ditugu.

Hans Robert Jaussek, «Harreraren estetika» izenekoaren aitak egindako heroia-aren kontzeptuaren sailkapenean oinarritu dugu ikerketa. Tipologia horrek, hartzaileak agertzen duen jarreraren arabera, identifikazioan erreferentziazko heroi desberdinak sailkatzen ditu: heroi dibertigarria, heroi ezin hobea, heroi sufritua edo larritua, akastun heroia eta heroi desagertua edo antiheroia. Gure ekarpena antiheroiei dagokienez, bi heroi mota desberdintzea izan da: madarikatua (iskanbilatsu eta ezkorra) eta gaitzesgarria (arraroa eta diletantea).

Heroi mota desberdinen ezaugarriak zehazte aldera, heroikoak kontsideratu daitezkeen figurez osaturiko sorta jaso dugu, adibideen bitartez. Irizpide metodologikoa, analogikoa izan da, ideiak senaren bitartez elkartzean oinarritua; iradokitzailea eta sintetikoa dela, eta balio poetikoa duela iritzita.

Bestalde, heroien ekintzak nabarmendu ditugu, ekintza heroikoak *bidaiaren* ideiarekin erlazionatuaz; proiektu jakinaren barnean, erronka-jotzailea den helburua duen bidaia. Horren aurrean, ekintza antiheroikoa *pasieran* ibiltzearen kontzeptuarekin erlazionatu dugu; noraezean ibiltzearekin, helmuga jakinik gabe, bizi-prozesu moduan. Bidaia heroikoa segidako etapetan zatitzen duen Joseph Campbell-en eskema erabili dugu, literatura klasikoko motiboen eta zinematik

jasotako adibideen bitartez. Gure ekarpen modura, ibiltari antiheroikoekin baliokidetasuna eratu nahi izan dugu, bidaia heroikoen kasuan deskribatutakoen alderantzizkoa izatetik eratorriaz.

Oinarri kontzeptuala ezarri ostean, ezaugarritze hau irudikapen heroikoen sailarekin erlazionatu dugu. Irudikapenaren kontzeptuaren inguruan gogoeta egin ostean, modernitatearen bereizgarriak diren hiru poetika deskribatu ditugu: absurdoaren poetikak, itsusiaren poetikak eta poetika ironikoak. Ekarpen plastiko moduan, fikziozkoak ez diren emakumezkoen erretratu saila eratu dut, heroikoaren kategorian mintzaten diren hiru autoreen erretratu sailari zabalkundea eta erantzuna ematen diotelakoan: Gerhard Richter-en *48 Portraits*, Marlene Dumas-en *Rejected* eta Andy Warhol-en *Thirteen most wanted men*.